


<p>B) Kasua: XABIER, ERRETAKO HIZTUNA, <i>IRTEN HIZKUNTZAREN ARMAIRUTIK</i> liburutik hartua</p>	
<p>Korapiloa non: XABIER, Erretako Hiztunaren gorabeherak Aztergaia: Pertsonaiaren profila eta hizkuntza-portaera aztertu eta baloratu. Portaera egokiagoa izan dezan proposamenak egin.</p>	

<p>AZPITALDEAREN EGINKIZUNA: lan dinamika, azterketarako gidoia</p>	<p>80'</p>
<p>1.- AZPITALDEAREN EGINKIZUNA osorik irakurri, bakarka:</p>	<p>3 bat minutu</p>
<ul style="list-style-type: none"> Jarraian datozen argibideak arretaz irakurri. 	
<p>2.- Pertsonaiaren deskribapena irakurri, bakarka:</p>	<p>12 bat minutu</p>
<ul style="list-style-type: none"> Irakurri ondoko testua (hiztunaren profilaren deskribapena). Irakurri ahala <i>Partaideentzako lan fitxan</i> honako hauek apuntatzen joan zaitezke: ikusitako ezaugarri edo jokabiderik esanguratsuenak, pertsonaiari egingo zenizkiokeen proposamenak haren jokabide egokiagoa izan dadin, eta abar. Ohar horiek izango dira talde-lanaren abiapuntua. Taldean hitz egindakoarekin joango zara zure oharrak eguneratzen eta osatzen. 	
<p>3.- Egoera aztertzen hasi, azpitaldean:</p>	<p>20 bat minutu</p>
<p>Gidoi honi jarraituz (Ideiarik esanguratsuenak <i>Partaideentzako lan fitxan</i> jasoko dituzu) :</p>	
<ul style="list-style-type: none"> Aztertu, gogoeta egin: <ul style="list-style-type: none"> Aztertu eta baloratu pertsonaia horren eta inguruko jokabidea. Ikusten al duzu antzeko jokabiderik zuen ikastetxeko Hezkuntza Komunitatean? Halako jokabideek zein eragin eta ondorio izaten dituzte? Eragozpenik edo endredorik sortu al dituzte? Proposamenak egin, erabaki: <ul style="list-style-type: none"> Zer proposatuko zenikete pertsonaiari egoera korapilatsu horietan portaera egokiagoa izan dezan? Hezkuntza Komunitatean antzeko jokabiderik antzemanek gero, zer egingo zenukete? 	
<p>4.- Testu berria irakurri:</p>	<p>10 bat minutu</p>
<ul style="list-style-type: none"> Irakurri banatu berri dizuten testua: <i>dibanera, auto-laguntza fitxa</i> eta <i>errezeta</i>. 	
<p>5.- Azterketa osatu, azpitaldean:</p>	<p>20 bat minutu</p>
<ul style="list-style-type: none"> Aztertzen jarraitu <ul style="list-style-type: none"> Komentatu eta baloratu egileek egin duten azterketa (<i>Dibanera</i> atalean). Osatu egileen azterketa zuen ekarpenekin. Proposamen gehiago egin: <ul style="list-style-type: none"> Komentatu eta baloratu egileek egiten dituzten proposamenak (<i>Autolaguntza-fitxa</i> eta <i>Errezeta</i> ataletan). Ados al zaudete proposamen horiekin? Zertan? Egin beste proposamen batzuk, pertsonaiak portaera asertiboagoak izan ditzan ohiko egoera korapilatsuetan. Pertsonaiak, solaskideengana zuzentzen denenean, zer egin dezake era asertiboan jokatzeko? Nola adieraz ditzake bere nahiak edo egin ditzake eskaerak? Idatzi solasaldi-adibideren bat. Estrategiak eta argudiabideak. Pertsonaiaren jokabidea optimizatzeko zenbait proposamen egin dituzue. Proposamen horiek aldaketa-eragingarri izan daitezzen nola jokatu zenukete? <ul style="list-style-type: none"> Pentsatu zer estrategia eta argudiabide baliatuko zenituzkeen pertsonaiari zuen proposamen horiek helarazteko. Ikastetxeko hezkuntza-komunitatean antzeko jokaera duen norbait balego, zer egingo zenukete? Zein estrategia baliatuko zenukete haren jokaera optimizatze aldera? Zer-nolako argudioak emango zenituzketen? 	
<p>6.- Azpitaldearen ondorioak idatziz jaso:</p>	<p>15 bat minutu</p>

- o Identifikatu azterketa-saioan atera dituzuen ondorioak eta proposamenik esanguratsuenak (eta nork bere *lan fitxan* jaso dezala)
- o Idazkariak *Azpitaldearen ondorioak* fitxan jasoko ditu, bateratze-saioan aurkeztu ahal izateko. Saioaren bukaeran, lantaldearen dinamizatzaileari emango dio fitxa.

BATERATZE SAIOA

7.- Lantaldean, bateratze saioa:

30'

- **Elkarri aurkeztu:** azpitaldean aztertu duzuen kasua eta atera dituzuen ondorioak lantaldeko gainerako kideei aurkeztu.
Bi –edo hiru– azpitaldek aztertu duzue kasu bera. Informazioak ez errepikatzearren, azpitaldeetako baten idazkaria hasiko da, eta...
 - o Pertsonaia deskribatuko du eta kasuaren ezaugarriak aurkeztuko ditu.
 - o Ondoren, azterketan egin dituzuen balorazioak, proposamenak, estrategia eta argudiabidea azalduko ditu.Bigarren (eta, balego, hirugarren) azpitaldeko idazkariak aurrekoak esandakoa osatuko du, errepikapenak ekidinez.
- **Eztabaidatu:** beste azpitaldeek landu duten kasuaren aurkezpena entzun ondoren, galderak eta ekarpenak egin.
- **Eztabaida idatziz jaso:** azpitaldeetako idazkariak jasoko dituzte eztabaidan agertutako iritziak eta ekarpenak *Azpitaldearen ondorioak* orriaren gibelaldean. Saio amaieran lantaldearen dinamizatzaileari emango dio.